DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Alkatetza
Alcaldía

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481005 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

10740n XVII

**UDALBATZARI**

Oraingo legegintzaldiko gobernu-programan (2019-2013), gobernu honek hitzeman zuen Igeldon toki erakunde txiki bat (Udalez peko erakundea, bestela esanda) eratzea sustatuko zuela, udal eraginkorragoa, hurbilagoa eta parte-hartzaileagoa lortze aldera.

Horretarako, alkateak **batzorde ez-iraunkor bat** sortzea proposatu zuen, Igeldon toki erakunde txiki bat eratzea sustatzeko. Igeldo administrazio aldetik deszentralizatzen lagunduko duen erakundea eratzeko prozedurari hasiera eman aurretik, lege-esparrua aztertu eta adostu behar zen.

2020/06/15ean, Donostiako Udaleko talde politiko guztiek, Udaleko Zerbitzu Orokorren Batzordean, batzorde ez-iraunkorra sortzearen aldeko botoa eman zuten; beraz, proposamena aho batez onartu zen eta, ondorioz, Udalbatzaren onarpena ere lortu zuen.

Batzorde ez-iraunkor hori alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek eta alkateak osatzen dute. Alkatea da batzordeburua.

Hasieratik, komenigarritzat jo zen herritarren parte-hartzea kontuan hartzea, bi helbururekin: alde batetik, adostasunak bilatzeko lan-metodologia ezartzea eta, bestetik, 2/2003 Foru Arauan aurreikusitako prozesuaren abiaburura iristean, hobeto ezagutzea prozesu horrek planteatzen dituen erronka eta edukiak

Asmo horrekin, Igeldoko Herri Kontseiluko kideei eskatu zitzaien, Udalbatzako ordezkariekin batera, haietako batzuek lantalde batean parte hartzeko. Taldea 2020/10/16an hasi zen lanean, Udaleko Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikarien eta Siadeco Ikerketa Elkarteko teknikarien laguntzarekin; Siadeco idazkaritzaz, aholkularitzaz eta lantaldearen dinamizazioaz arduratu da.

Talde hori udal korporazioko bost kidek, alkateak eta Igeldoko Herri Kontseiluko bost kidek osatzen dute, eta haren egitekoa izan da edukiak taxutzea, funtzionamendua zehaztea eta, Udalaren osoko

**AL AYUNTAMIENTO PLENO**

En el programa de gobierno de la legislatura actual 2019-2023, este gobierno adquirió el compromiso para promover la constitución de una Entidad Local menor en Igeldo como instrumento que pudiese ayudar a lograr un Ayuntamiento más eficaz, cercano y participativo.

A tal efecto, el alcalde propuso la creación de una **comisión no permanente** para promover la constitución de la Entidad Local Menor en Igeldo con el objeto de estudiar y acordar el marco legal previo al inicio del procedimiento para la constitución de la entidad que ayudará a la descentralización administrativa de Igeldo.

El 15/06/2020 todos los grupos políticos del Ayuntamiento de San Sebastián votaron a favor de la creación de la misma en la Comisión de Servicios Generales del Ayuntamiento, de manera que la propuesta fue a probada por unanimidad con su consiguiente aprobación en el pleno.

Esta comisión no permanente quedó formada por un representante de cada partido político y el alcalde que la preside.

Igualmente se estimó conveniente incorporar desde el inicio la participación ciudadana, con dos objetivos: por un lado implementar una metodología de trabajo de búsqueda de consensos y por otro, llegar al punto de partida del proceso previsto en la Norma Foral 2/2003 con un conocimiento mayor de los retos y contenidos que este proceso plantea .

Con esta voluntad se solicitó a miembros del Igeldoko Herri Kontseilua que junto a la representación de la corporación en el seno de la Comisión formaran parte de un grupo de trabajo. El grupo inició su tarea el 16/10/2020 y ha sido asistido por personal técnico municipal del servicio de Participación Ciudadana y técnicos de la Sociedad de Investigación Siadeco encargada de la secretaría, del asesoramiento y dinamización del grupo de trabajo.

Este grupo, formado por 5 miembros de la corporación, el alcalde y 5 miembros del Igeldoko Herri Kontseilua ha realizado un trabajo de aproximación a contenidos, funcionamiento y

bilkuran toki erakunde txikia sortzeko prozesuari ekin ostean, jarraitu beharreko plangintza egitea.

planificación del proceso a seguir, una vez se de aprobación en el Pleno municipal al inicio del proceso de creación del Ente Local Menor.

*Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko lantaldea definitzeko prozesuaren memoria* izena duen dokumentuan jasotako lan horrek gidatzen du, hain zuzen ere, zer prozesuri jarraitu behar zaion Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko.

Este trabajo recogido en el documento denominado *Memoria del proceso de definición del grupo de trabajo para la creación de la Entidad Local Menor de Igeldo*, que figura en el expediente, orienta el proceso a seguir para avanzar en la creación del Ente local menor de Igeldo.

Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko espedientea abiarazteko erabaki proposamen hau eragin duen lana amaitu ondotik, azkendutzat ematen da Igeldon toki erakunde txiki bat eratzea sustatzeko sortutako batzorde ez-iraunkorra.

Finalizado el trabajo desarrollado que da lugar a esta propuesta de acuerdo de inicio del expediente de creación del Ente local menor de Igeldo alcanza su final la Comisión no permanente creada promover la constitución de la Entidad Local Menor en Igeldo.

Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, III. kapituluaren barruan, prozeduraren ekimenari dagokionez, honako hau dio 26. artikuluak:

En la norma foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, en cuanto a la iniciativa del procedimiento dentro del capítulo III en el artículo 26 dice lo siguiente:

26. artikulua. Ekimena

Udalez peko erakundeak eratzeko ekimena martxan jarri dezakete:

a) Erakundearen oinarria izan behar duen lurraldeko auzotar egoiliarrek, lurraldeari zegokion azkenengo hautesle erroldan zeuden guztien ehuneko berrogeita hamar, gutxienez, baldin badira. Ekimena martxan jartzeko batzorde sustatzailea eratuko dute auzotarrek.

b) Udalak, egitatezko udalkide kopuruaren bi herenen eta, betiere, legezko udalkide kopuruaren gehiengo absolutuak aldeko botoa ematen badu.

Artículo 26. Iniciativa

La iniciativa para la constitución de Entidades Locales menores corresponde:

a) A los vecinos residentes en el territorio que ha de ser base de la entidad, en una mayoría del cincuenta por ciento, como mínimo, del último censo electoral de la parte del territorio correspondiente. A tal efecto, los vecinos han de constituir una comisión promotora.

b) Al Ayuntamiento correspondiente, mediante acuerdo adoptado con el voto favorable de las dos terceras partes del número de hecho y, en todo caso, de la mayoría absoluta del número legal de los miembros de la corporación.

Udalak egokitzat jo du Igeldorako toki erakunde txikia sortzea eta 26 b) artikuluaren arabera definitutako prozedurari ekitea. Erabaki hori hartzeko, izatezko kopuruaren bi herenen aldeko botoa behar da, eta, edozein kasutan, udal korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa ere bai.

El Ayuntamiento ha estimado conveniente la creación del ente local menor para Igeldo e iniciar el procedimiento acorde al articulo 26 b). Dicho acuerdo debe adoptarse con el voto favorable de las dos terceras partes del número de hecho y, en todo caso, de la mayoría absoluta del número legal de los miembros de la corporación.

Gipuzkoako udal barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 28. artikuluan xedatutakoak dioenaren arabera erabakia hartu ondoren, Udalak azterlan bat egin beharko du erakunde berria eratzea komenigarria dela justifikatzeko. Azterlan horretan, aipaturiko

Adoptado el acuerdo, de conformidad con lo dispuesto en el articulo 28 de la Norma Foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, el Ayuntamiento debe confeccionar un estudio justificativo de la conveniencia de la constitución de

foru arauaren 28. artikuluan adierazitako alderdiak jaso beharko ditu.

Azterlana egin ondoren, jendaurrean jarriko da formalizatutako espedientea, eta aipatutako foru arauaren 29. artikuluan ezarritako gainerako izapideak egingo dira.

Udalaren asmoa da udal ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek eta Igeldoko eremuko auzo-ordezkariek lankidetzan jardutea aipatutako azterlana egiten.

Horretarako, inguruabar bereziak kontuan hartuta, eta Gobernu eta Administrazioko Erregelamendu Organikoaren (ROGA) 52.3 artikuluan xedatutakoaren babesean, alkateak egokitzat jotzen du batzorde berezi bat sortzea, zeinak Igeldoko toki erakunde txikia eratzeko lantalde izena hartuko baitu. Batzorde horren helburua izango da Udalak egin beharreko azterlana egiten parte hartzea, eta, informazio juridikoa eta fiskalizatua eman ondoren, Udalaren osoko bilkurari helaraziko zaio, jendaurrean jarri aurretik onets dezan eta, hala, prozesuak aurrera jarraitu ahal izan dezan.

Batzorde hori aholku emateko da, ez da osoko bilkuraren organoa, eta alkateak proposatuta sortu da, Gobernu eta Administrazioko Erregelamendu Organikoaren 52.3 artikuluaren babesean. Halaber, Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduaren 20. eta 23. artikuluen aurreikuspenaren adierazgarri da.

Batzorde berezi horri kontsulta egingo zaio, erakundea eratzeko proposamena aurkezteko eta onartzeko erabaki proposamena egiteko epean jasotako alegazioak ebatzi aurretik.

Espedientean jasotako arauek definituko dute batzorde bereziaren funtzionamendua, eta organo horrek osatu ahal izango ditu funtzionamendu arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aldi berean, herritarrek parte hartzeko prozesu osagarriak egitea aurreikusten da, Igeldoko herritarren ikuspegia modu irekian eta zabalean jasotzeko.

Horiek horrela, alkateak honako erabaki hau hartzea proposatzen dio Udal Batzari:

la nueva entidad, estudio que deberá contemplar los aspectos señalados en el referido articulo 28.

Elaborado el estudio, se someterá el expediente formalizado a información pública y se seguirán el resto de trámites establecidos en el articulo 29 de la referida Norma Foral.

Es voluntad del Ayuntamiento la colaboración de todas las fuerzas políticas con representación municipal así como de representantes vecinales del ámbito de Igeldo en la confección del referido estudio.

A tal fin, dadas las especiales circunstancias concurrentes, al amparo de lo dispuesto en el articulo 52.3 del Reglamento Orgánico de Gobierno y Administración, ROGA, por parte del Alcalde se considera procedente la creación de una Comisión especial que adoptará la denominación de Grupo de trabajo para la constitución de la Entidad local menor de Igeldo, y que tendrá como objeto la participación en la elaboración del estudio que el Ayuntamiento debe elaborar y que una vez informado jurídica y fiscalizado, será elevado al Ayuntamiento Pleno para su aprobación de forma previa a su exposición pública y continuación del proceso.

Esta Comisión, de naturaleza consultiva, que no tiene naturaleza de órgano del Pleno y que se crea a propuesta del Alcalde al amparo del articulo 52.3 del ROGA, constituye manifestación de la previsión del Reglamento de Participación ciudadana, artículos 20 y 23.

La citada Comisión especial será consultada con carácter previo a la resolución de alegaciones recibidas en el periodo de exposición y elaboración de la propuesta de acuerdo de aprobación de la propuesta de constitución de la entidad.

El funcionamiento de la Comisión especial se regirá por las reglas recogidas en el expediente, pudiendo, de conformidad con lo previsto en el articulo 15.3 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, completar este órgano sus reglas de funcionamiento.

Paralelamente se prevén celebrar procesos de participación ciudadana complementarios que recojan de manera abierta y amplia la visión de las y los vecinos de Igeldo.

Por ello, el alcalde, propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente:

Alkatetza
Alcaldía

**ERABAKIA**

**1.-** Onartzea Igeldo Toki Erakunde Txikia eratzeko Udalaren ekimena, Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauko 26.b) artikuluarekin bat datorrena.

**2.-** Onartzea batzorde berezi bat eratzea. Aholku-emailea izango da batzorde hori, eta Igeldoko Toki Erakunde Txikia eratzeko lantaldea izango da haren izena. Batzordean ordezkaturik egongo dira Udaleko talde politiko guztiak (alderdi politiko bakoitzeko bat), Igeldoko herritarrak ordezkatuko dituzten kide kopuru bera, eta alkatea, batzordearen presidente gisa.

Batzordeak Igeldoko toki erakunde txikia sortzeko lantaldea zehazteko prozesuaren memorian jasotako irizpideen arabera funtzionatuko du, eta organo berean osatu edo garatu ahal izango dira aipaturiko irizpide horiek.

**ACUERDO**

**1.-** Aprobar la iniciativa por parte de Ayuntamiento para la constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo, acorde al artículo 26.b) de la Norma Foral 2/2003 de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa.

**2.-** Aprobar la constitución de una Comisión especial, de carácter consultivo, con denominación de grupo de trabajo para la constitución de la Entidad Local Menor de Igeldo donde estén representados todos los grupos políticos del Ayuntamiento (uno por cada partido político), mismo número de miembros que representen a las y los vecinos de Igeldo y una presidencia que la ostentará el alcalde.

El funcionamiento de la Comisión se regirá por los criterios contenidos en la Memoria del proceso de definición del grupo de trabajo para la creación de la Entidad Local Menor de Igeldo, pudiendo los mismos ser completados o desarrollados en el seno del mismo órgano.

Donostia, 2021eko maiatzaren 3a

Eneko Goia Laso
ALKATEA